



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko abenduaren 26a

158. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, 544.158 euroko kreditu berezia ematekoa 2017ko gastuen aurrekontuan, Iruñerriko Mankomunitatea-Iruñerriko Zerbitzuak, SAri diru-laguntza bat eman dakion Nafarroako Ubidea SAri ordaindu beharreko 2017ko tarifa finantzatzeko, Itoizko urtegitik Nafarroako Ubidearen bidez heldu den ura hornitzearen sinatutako kontratuaren ondorioz. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Kutxaren desagerpenari buruzko Ikerketa Batzordea. Batzordearen ondorioztapenak onesteko epea luzatzea (4. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, 544.158 euroko kreditu berezia ematekoa 2017ko gastuen aurrekontuan, Iruñerriko Mankomunitatea-Iruñerriko Zerbitzuak, SAri diru-laguntza bat eman dakion Nafarroako Ubidea SAri ordaindu beharreko 2017ko tarifa finantzatzeko, Itoizko urtegitik Nafarroako Ubidearen bidez heldu den ura hornitzearen sinatutako kontratuaren ondorioz.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko abenduaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, 544.158 euroko kreditu berezia ematekoa 2017ko gastuen aurrekontuan, Iruñerriko Mankomunitatea-Iruñerriko Zerbitzuak, SAri diru-laguntza bat eman dakion Nafarroako Ubidea SAri ordaindu beharreko 2017ko tarifa finantzatzeko, Itoizko urtegitik Nafarroako Ubidearen bidez heldu den ura hornitzearen sinatutako kontratuaren ondorioz".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2017ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Foru Legea,
544.158 euroko kreditu berezia ematekoa 2017ko gastuen aurrekontuan, Iruñerriko Mankomunitatea-Iruñerriko Zerbitzuak, SAri diru-laguntza bat eman dakion Nafarroako Ubidea SAri ordaindu beharreko 2017ko tarifa finantzatzeko, Itoizko urtegitik Nafarroako Ubidearen bidez heldu den ura hornitzearen sinatutako kontratuaren ondorioz**

HITZAURREA

Ebroko Ur Konfederazioko lehendakariaren 2004ko apirilaren 14ko Ebazpenaren bidez Irati ibaiko ur publikoen aprobetxamendu bat eman zitzaion Nafarroako Gobernuari, Itoizko urtegian, Itoitz-Longidako udal-mugartean (Nafarroa), Nafarroako Foru Komunitateko zenbait udalerritan bizilagunen eta industriaren hornidurarako.

Iruñerriko Mankomunitateak hornidurarako ura erabiltzen du aprobetxamendu horretaz baliatuz, Nafarroako Ubidearen bitartez, eta, horretarako, 2006ko ekainaren 14an hornidura kontratu bat izenpetu zuen Canal de Navarra SA sozietate publikoarekin, Mankomunitatearen Servicios de la Comarca de Pamplona SA sozietatearen bidez. Iruñerriko Udalak erabil dezakeen uneko gehiengo ur-emaria ezarri zen hitzarmen horren hirugarren klausulan, azpiegitura zehaztu zenean hornidura arloan zegoen plangintzan jasotako aurreikuspenetan oinarrituta; 1.000 litro segundo-

koa da uneko gehieneko emaria eta urteko gehieneko bolumena, berriz, 22.54 Hm³-koa.

Iruñerriko Mankomunitateak Canal de Navarra SA sozietate publikoari jakinarazi dio emari hori bere egungo eta etorkizuneko beharren gainetik dagoela eta tarifyan eragin handia duela.

Nafarroako Foru Komunitateari interesatzen zaio Irati ibaian, Itoizko urtegian dagoen ur publikoan aprobeixamendu hori mantentzea hasieran eman zitzaion urteko gehieneko bolumen horrekin, Nafarroako Foru Komunitateko zenbait udalerritan bizilagunen eta industriaren hornidurarako erabiltzeko; horregatik, bidezkotzat jotzen du hornidura kontratu horren tarifyak dakarren kostua diruz laguntzea, zati bat ordainduz. Arestian esan bezala, kontratu hori Iruñerriko Mankomunitatea-Servicios de la Comarca de Pamplona SAk eta Canal de Navarra SA sozietateak izenpetu zuten Itoizko urtegiako ura hornitzeko Nafarroako Ubidearen bidez.

Indarreko 2017ko Gastuen Aurrekontuan ez dago krediturik jarduketa hori finantzatzeko, eta, beraz, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2004 Foru Legearen 48. artikuluan xedatutako-arekin bat, beharrezkoa da kreditu berezi bat ematea horretarako, 544.158 euroko zenbatekoa duena.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta dagoen kreditua aski ez bada eta ezin bada handitu aipatutako foru legean jasotako xedapenen arabera, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko duela Nafarroako Parlamentura, kreditu berezi bat onestekoa.

Bestalde, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17. artikulua aurreikusten du zuzenean ematen ahalko direla diru-laguntzak Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean berariaz izendatuta daudenean, bata horiek ematea lege mailako arau baten bidez ezartzen denean ere.

1. artikulua. Kreditu berezi bat ematea.

544.158 euroko kreditua ematen da Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuaren beharrei erantzuteko.

Kreditu hori aurrekontu-partida honetan aplikatuko da:

Partida	Zenbatekoa
780001 78300 4609 942300 "Hitzarmena MCP-SCPSAren, Nafarroako Ubideko ur hornidurarako, CANASaren bidez"	544.158 euro

2. artikulua. Kreditu bereziaren finantzaketa.

Kreditu berezi hau aurrekontuko partida hauen kargura finantzatuko da:

810012 81500 4819 49 4115, "Lan-arriskuen prebentziorako proiektuak" izenekoa. 111.000 euro.

820003 82230 6031 42 2500, "Administrazioko energia-kudeaketarako Plana" izenekoa. 122.000 euro.

820004 82200 2276 42 1300, "Laguntza teknika, kontrola eta ikuskapena" izenekoa. 50.000 euro.

840001 84310 6091 45 3200, "Azterlanak eta proiektuak" izenekoa. 100.000 euro.

810011 81220 7709 46 7902, "Banda zabala ezartzeko diru-laguntzak" izenekoa. 161.158 euro.

3. artikulua. Ahalmena ematen zaio Toki Administrazioko zuzendari nagusiari Nafarroako Gobernuak eta Iruñerriko Mankomunitatea-Servicios de la Comarca de Pamplona SAk izenpetu beharreko hitzarmena onetsi eta sinatzeko, foru lege honetan aipatzen den diru-laguntza emateko xedeaz, bai eta diru-laguntza hori 2017ko gastuen aurrekontuaren kargura eman eta ordaintzeko behar diren egintza administratibo guztiak emateko ere.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den egunean bertan.

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Kutzaren desagerpenari buruzko Ikerketa Batzordea.

BATZORDEAREN ONDORIOZTAPENAK ONESTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko abenduaren 22an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioek eta Ezkerreko foru parlamentarien elkarteak Nafarroako Kutzaren desagerpenari buruzko Ikerketa Batzordean dituzten ordezkariak eskaera bat igorri diote Legebiltzarreko Mahaiari, ondorioztapenak onesteko epea 2018ko ekainaren 30era arte luzatzeko.

Erregelamenduko 62. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Nafarroako Kutzaren desagerpenari buruzko Ikerketa Batzordearen txostena bukatzeko epea 2018ko ekainaren 30era arte luzatzea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza